

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein negozio-ereduren funtsa dira, haiek gabe ezingo baitu gure enpresak luzaro iraun. Gure enpresaren **produktibitatea** handitzeko enpresaren bezeroak zehazteko beharra dugu. Gure kontsumitzaile-mota zehaztu ondoren, gure produktibitatea modu eraginkorrean handituko litzateke, eta, horrela, biztanleriaren talde jakin batean zentratuko ginateke, gure prestazioak hobetu ahal izateko.

Alde batetik, gure jabetxea **25 urtetik gorako langileei** zuzenduta dago, bai emakumeei, bai gizonei, gehienek seme-alabak dituztenak. Guraso hauek beren seme-alaben ardurapenean daudenez ez dute denbora libre nahikorik eguneroko janaria prestatzeko. Gure zerbitzua Zamudioko Parke Teknologikoan kokatuta egongo denez, bertan lan egiten duten langileei zuzenduta egongo da. Edonola ere, Bizkaian bizi diren pertsona guztiek gure janaria dastatzeko aukera izango dute, beharrezkoa izango den ezaugarri bakarra gure banaketa zonaldearen barne egotea eta gure APP-a deskargatzea. (App Store eta Google Play erabilgarri).



Parke Teknologiko honetan jarduten duten langileek nahiko **diru-ahalmen ertain-handia** dute, hori dela eta gure produktuak errenta maila ertaina-handia duten pertsonentzat bideratuak dira. Familia hauek bizimodu eroso eta lasaia izatera ohituta daude eta haien funtsezko helburua kalitate handiko elikagaiak jatea da.



Bestalde, beste bezero segmentu bat **enpresak** berak osatuko dute. Enpresek beraien langileentzat kontratatu dezakete janari zerbitzu hau. Eskaintza berezi hau enpresa bakoitzean jarduten duten langileak gozatzeko ahalmena izango dute. Enpresen arduradunak gure *pack* berezia hautatzeko aukera

izango du, bere langileak gure menuak prezio ezin hobean kontsumitzeko aukera izango baitute, salneurri baxuagoan dauden eguneroko platerak erosiz.

Azkenik, Zamudioko Parke Teknologikoan kokatzen diren bi enprekin lortutako akordio aipatu beharra dugu. Hauek, “**Siemens Gamesa** renewable energy” eta “Gamesa energy transmission” enpresak dira eta enpresa hauen langileek astegunetan zehar gure jatetxean bazkaltzea lortu dugu.